

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren barruan hainbat jarduera eta zeregin egongo dira. Jarduera horiek ez dira bakarrik enpresaren eguneroko kudeaketarekin loturikoak, baizik eta gure helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurriak etengabe hartuko ditugu.

Lehenik eta behin, gure aplikazioarenerabilerari jarraipen bat egitea



ezinbestekoa izango da. Hilabetero, adibidez, zenbat gure app-an zenbat erabiltzaile sartzen diren aztertu beharko dugu, erabiltzaile horien joerak eta lehentasunak ezagutzea funtsezkoa izango baita.

Horretarako, erabiltzaileen datuak biltzeko eta prozesatzeko sistema eraginkorrak ezarri

beharko ditugu, eta horrek lagunduko digu.

Gure proiektua arrakastatsua izateko, ezinbestekoa da sektorean dauden lehiakideekin etengabe konparatzea. Urtero, gure enpresaren etekina eta errentagarritasuna gure lehiakideenekin alderatzea funtsezko ekintza izango da.

Sare jarduerak kudeatzea eta mantentzea ere gure estrategian garrantzi handia izango du. Gure enpresaren online presentzia sustatzea, sare sozialetan interakzioa handitzea eta komunitatea sortzea ezinbestekoa izango da.

Horretarako, marketin digitalaren estrategia bat ezarriko dugu, erabiltzaileen parte-hartzea eta ikusgarritasuna handitzeko helburuarekin. Webgune eta aplikazioaren hedapena sustatzea.

Bestalde, enpresaren garapenean sustapena eta kanpaina bereziak egitea ezinbestekoa izango da. Gure aplikazioaren ezagutza handitzeko, hainbat ekintza sustatuko ditugu, hala nola promozioak, deskontuak edo kanpaina espezifikoak. Gure helburua da merkatuan gure marka eta aplikazioa ezagun egitea, eta horretarako.

Horrekin batera, proiektuaren etorkizuneko helburua izango da nazioartekotzea. Gure aplikazioa beste merkatuetara zabaltzea eta mundu

mailan erabiltzaileak lortzea izango da hurrengo urratsa, beti ere eskaintza eta zerbitzuak moldatuz eta lehiakideekin posizionamendu estrategikoak landuz.